

DEBAko UDALA

2015SPLE0010
10. BILERA: OHIKOA 2015-09-24

UDALEKO PLENOA. BILERA-AKTA

Bilkura: arauz deitutako ohizko Udalbatzarra

Zenbatgarrena: hamargarrena

Eguna: 2015/09/24

Hasiera-ordua: 19:30

Amaiera-ordua: 20:45

BERTARATUTAKO ZINEGOTZI HAUTATUAK:


PPEDRO M^a BENGOETXEA LOIOLA
AITOR SALEGI IRURETA
M^a LUISA ALBIZU BEITIA
IÑAKI ESNAOLA OSTOLAZA
MAIDER ZUBICARAY BERISTAIN
AIMAR LASA URKIRI
ITZIAR IRIZAR BERISTAIN
JOSE LUIS ALBIZU BERISTAIN
MIREN ELISABETH URTEAGA IÑARRA
CRISTOBAL DEL CORTE LAPACHERIE
UNAI LEKUBE ARANBERRI
IÑIGO CAMBRONERO ALKORTA
ANA BELEN HIDALGO CORRAL, idazkaria

Azaldu ez diren zinegotzi hautatuak:

ANE MIREN EGIDAZU ELOSUA

Bertaratzeak eta irteerak


Gora-beherak



DEBAko UDALA

Aztergaiak:

1. Aurreko akta irakurtzea eta onartzea, hala badagokio.
2. 2. kreditu aldaketa onartzeko proposamena.
3. Kiroldegiko 2015erako prezio publikoak. Hasierako onespina emateko proposamena.
4. 2015STAX0001 taxien tarifak onartzeko proposamena.
5. Gurutze Gorrirako Udal ordezkariaren izendapen proposamena.
6. UEMArako Udal ordezkarien izendapen proposamena.
7. Debarrena Mankomunitaterako Udalaren ordezkarietako baten izendapen aldaketa proposamena.
8. Tokiko jai egunaren proposamena.
9. 2004NNSS0001 PERCH-aren behin betiko onarpenaren proposamena. Portu kalea, 2.
10. Mozioa. Amnistia Internacional-ek aurkeztua.
11. Mozioa. EH Bilduk aurkeztua.
12. Mozioa. Stop Desahucios-ek aurkeztu.
13. Alkatetza Dekretuen berri ematea.
14. Eskariak eta galderak.



DEBAko UDALA

Esan-eginak eta erabakiak

1. AURREKO AKTA IRAKURTZEA ETA, HALA BADAGOKIO, ONARTZEA.

Aimar Lasa zinegotziak esan du, Udalbatzarraren 2015eko uztailaren 22ko ohizko bilkuraren aktaren laugarren puntuan akats bat dagoela euskarazko ereduan, izan ere, bozketa “zinegotzi guztien” aldeko botoarekin onartu zela dator jasota eta “gehiengo absolutua” esan beharko luke. Aktan dagokion aldaketa egin ondoren, bozkatu egin da eta aho batez onartu da, Udalbatza osatzen duten legezko hamahiru zinegotzietatik hamabi bilkuran direla.

2. 2. KREDITU ALDAKETA, KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEAN, ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Iñaki Esnaola zinegotziak Finantza, Ondasun eta Kontuen Batzorde bereziaren proposamenaren berri eman du.

Kreditu gehigarrien proposamena

Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu berehala egitea. Izan ere, horiek atzeratuz gero sortuko litzatekeen kalteak eragin nabarmena izango luke zerbitzuen kalitatean. Aurrekontuaren exekuzioaren arabera, ordea, gastu partidetan ez dago nahiko krediturik aipatutako gastuei aurre egiteko. Ondorioz, kredituak sortzea proposatzen da, ondoko taulako xehetasunaren arabera:

2. KREDITU ALDAKETA 2015-KREDITU GEHIGARRIAK

Kapitulua	Izena	Gehikuntzak
2	Auditoria	12.100
2	Ingurumena. Isurketa zerbitzua	10.000
4	Ingurumena. Udal Agenda 21	20.570
6	Zerbitzuetako furgoneta	21.700
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		64.370

FINANTZAKETA

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
4	Ingurumena. Udal agenda 21. Diru-laguntza	49.370



DEBAko UDALA

8	Altxortegiko gerakina	15.000
GUZTIRA		64.370

Finantza, Ondasun eta Kontuen batzorde bereziaren proposamena

Udal honen aurtengo aurrekontuaren barnean kreditu gehigarrien bidez kredituak aldatzeko izapidetzen ari den espedientea aztertu dugu.

Kreditu gehigarriak finantzatuko dituzten sarrerak bat datoz espedienteari aplikagarria zaion araudian aurreikusitakoekin, eta oso-osorik finantzatzen dute gastu gehikuntza.

Halaber, kontu-hartzaileak egindako aldeko txostena ere aztertu dugu.

Azaldutako guztiarengatik, eta kreditu aldaketak finantzaketa nahikoa eta egokia duela kontuan hartuz, Batzorde honek adostu du aipatutako espedientea ontzat ematea eta organo eskudunari proposatzea kreditu gehigarriak, 64.370,00 eurokoak, behin betiko onar ditzala.

Iritziak eta galde erantzunak

Aimar Lasa zinegotziak esan du, printzipioz, kreditu aldaketarekin ados daudela, baina auditoriaren inguruan esan du, beraiek ere eskuratu nahi dutela horren emaitza.

Iñaki Esnaola zinegotziak azaldu du, auditoria bi zatitan banatuko dela, batetik, 2014ko kontuen berri emango du, eta bestetik, 2015 urteari buruzko aurreikuspen bat egingo du, eta datu horiek kontuan edukiko direla aurrekontua egiteko orduan.

Maidar Zubizaray zinegotziak esan du, kontuhartzaileak lan hori egin ahal duela.

Bozketa arrunta egin ondoren, idazkariak honako emaitza hau jaso dela informatu du:


Erabakia.

Aurrekarien berri izanda, Udalbatzarrak aho batez hartu du erabakia, legezko hamahiru kideetatik hamabi bilkuran direla, horretarako aintzat hartu da Finantza, Ondasun eta Kontuen batzorde bereziaren proposamena:

Lehenengo.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko 2. espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

KREDITU GEHIGARRIAK

Kapitulua	Izena	Gehikuntzak
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	22.100
6	INBERTSIO ERREALAK	21.700
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	20.570



DEBAko UDALA

KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA	64.370
------------------------------------	--------

FINANTZAKETA

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	49.370
8 (SARRERAK)	FINANTZA AKTIBOAK	15.000
GUZTIRA		64,370

Bigarrena.- Jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.

3. KIROLDEGIKO 2015ERAKO PREZIO PUBLIKOAK. HASIERAKO ONESPENA EMATEKO PROPOSAMENA.

Aitor Salegi zinegotziak proposamenaren berri eman du.

Txostena

Idazkariak prezio publikoak aldatzeko jarraitu beharreko prozeduraren azalpena eman du: Udaltzarrak tributuen ordenantza fiskalen onespenerari eta aldaketei buruz hartutako behin-behineko erabakiak Udaletxeko iragarki taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira. Horrela dio uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Hazienda Lokalak arautzen dituenak, 16. artikuluan.

Hogeita hamar eguneko epean interesatuek alegazioak aurkezteko aukera izango dute. Jendaurreko informazioaren emaitzak ikusirik, alegaziorik ez baldin badago, behin-behineko erabakia behin-betiko bihurtuko da. Jarraian, ordenantzen aldaketak osotasunean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko dira.

Udaltzarraren erabakiari buruz, Idazkariak zera informatu du: ordenantza fiskalen aldaketak gehiengo soilaren aldeko botoa beharko du.

Iritziak eta galde erantzunak

Aimar Lasa zinegotziak galdetu du kiroldegian emango diren zerbitzuen inguruan eta horien kudeaketa motaren inguruan.

Alkateak azalpenak eman ditu administrazio kontrauta esleitu bitartean zerbitzuaren antolaketari buruz eta kontratazio espedientearen beraren nondik norakoei buruz.



DEBAko UDALA

Bozketa arrunta egin ondoren, idazkariak honako emaitza hau jaso dela informatu du:

Erabakia.

Aurrekarien berri izanda, Udalbatzarrak aho batez hartu du erabakia, legezko hamahiru kideetatik hamabi bilkuran direla, horretarako aintzat hartu da Finantza, Ondasun eta Kontuen batzorde bereziaren proposamena:

Lehenengo.- 2015 ekitaldi ekonomikorako, jarraian zehazten diren prezio publikoak onartzea:

<u>2015- URRIA –ABENDUA BITARTEKO KIROLDEGIKO ZERBITZUATARAKO PREZIOAK</u>		
BAZKIDETZA		
Senitartekoa , 16-18 urtekoak barne	50€	
Bakarkakoa > 18 urte	33	
Bakarkakoa 16-18 urte bitartekoak	22	
Bakarkakoa de 12 -16 urte bitartekoak	12	
Bakarkakoa > 18 años langabezian	22	
Bakarkakoa pentsionistak	22	
Bakarkakoa ikasle txartelarekin	22	
EGUNEKO SARRERA	Bazkide	Ez bazkide
Bakarkakoa > 18 urte fitness gela	doan	5€
Bakarkakoa > 18 urte kantxa	doan	2,50
Bakarkakoa < 18 urte kantxa	doan	2,00
ZERBITZUAK	Bazkide	Ez bazkide
Sauna	doan	5€
Kantxaren alokaera	25€	25€
Teniseko kantxa irekia > 18 urte (erreserba)	10	10+sarrera
Teniseko kantxa irekia < 18 urte (erreserba)	6	6+sarrera
EKINTZA ZUZENDUAK – HILEKO PREZIOAK	Bazkide	Ez bazkide
PILATES.- 2 saio astean.	35	50
PILATES.- 3 saio astean	50	65
GIMNASIA HIPOPRESIBOA	32	45
MULTIFITNESSA.- 2 saio astean	30	44
FITBOX. – 2 saio astean	30	44



DEBAko UDALA

CROSS-FIT.- 2 saio astean	30	44
ZUMBA.- 2 saio astean.	30	44
CICLING.- 2 saio astean	32	45
CICLING.- 1 saio astean	20	30
Saio solteak: Pilates,spinning,multifitness, eta besteak	6,00	8,00
Bi ikastaroren konbinaketa %25eko deskontua (4 edo 5 saio astean)		
Baldintza fisikoen testa eta entrenamenduaren diseinoa fitness aparatuetan.	25	37,50

Bigarren.- Hartutako erabakia eta horretarako hasitako espedientea jendaurrean ipintzen da uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 16.1 artikuluan xedatutakoari jarraiki, Gipuzkoako Herri Ogasunen Arautzailea, lehen aitatutako artikuluen 2. puntuak agintzen duen eran:

- a) Ikusgai dagoen lekua: Udaletxe honetako Kontu-hartzailertzan.
- b) Aztertu eta erreklamazioak egiteko epea: 30 lanegun behin iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik, bulego orduetan.
- c) Erreklamatu dezaketanak: Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 17. Artikuluan adierazten direnak.
- d) Aurkezteko bulegoa: Udaletxeko Sarrera Erregistro Nagusian. Halaber, Herri Administrazioen Araubidearen eta Administrazio Jardunbidearen Legeak 38. Artikuluan aipatzen dituen lekuetan.
- e) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Erreklamazioak edo iradokizunak egiteko arauzko epean inork ez balu egingo, erabakiak behin-betikotzat hartuko lirateke akordio berririk hartzen ibili gabe.


4. 2015STAX0001 TAXIEN TARIFAK ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Aurrekariak

2005 urtean Deba Behereko erregimen bereziko eremuaren sorrera onartu zuen Foru Aldundiak (GAO, 2015-09-22) turismo ibilgailuetan bidaiarien herri barruko edo herriarteko garraio publikoaren zerbitzua eskaintzeko.

AGITAX elkarteak bidali du txosten ekonomikoa eta 2016 urterako hiri barruko taxi zerbitzuen tarifen proposamena, Udalbatzarrak onartzeko. Proposamena da 2015 urteko tarifak mantentzea.

Bozketa arrunta egin ondoren, idazkariak honako emaitza hau jaso dela informatu du:



DEBAko UDALA

Erabakia

Finantza, Ondasun eta Kontuen batzorde bereziaren proposamenaren berri izanda, Udalbatzarrak aho batez hartu du erabakia legezko hamahiru kideetatik hamabi bilkuran direla.

Lehenengo.- 2016 urterako hiri barruko taxi zerbitzuen tarifak mantentzea:

KONTZEPTU TARIFA	Gutxiena	Egindako kilometroa	Itxaron ordua
1 TARIFA *	5,0153	1,2559	16,7861
2 TARIFA **	5,4610	1,3899	17,6509

*Lanegunetan 07:00etatik 22:00etara

**Egunero 22:00etatik 07:00ak arte. Bai igande, araudi autonomiko eta lokaleko jai egunetan, larunbatetan, 07:00etatik 22:00etara bai larunbatetan, eta abenduaren 24an eta 31n.

5. GURUTZE GORRIRAKO UDAL ORDEZKARIAREN IZENDAPEN PROPOSAMENA.

Bozketa arrunta egin ondoren, idazkariak honako emaitza hau jaso dela informatu du:

bozketa


◇ Bozketan parte hartu duten zinegotziak:	12
◇ Aldeko botoak:	7
Aldeko boto-emaileak: PEDRO M ^a BENGOETXEA, AITOR SALEGI, M ^a LUISA ALBIZU, IÑAKI ESNAOLA, Debarren Ahotza taldeko Alkate eta zinegotziak.	
◇ CRISTOBAL DEL CORTE, UNAI LEKUBE, IÑIGO CAMBRONERO, EAJ-PNVko zinegotziak.	
◇ Aurkako botoak:	5
◇ Aurkako boto-emaileak: MAIDER ZUBICARAY, AIMAR LASA, ITZIAR IRIZAR, JOSE LUIS ALBIZU, MIREN ELISABETH URTEAGA, EH Bilduko zinegotziak.	
◇ Abstentzioak:	0
◇ Emaitza: UDAL PROPOSAMENA ONARTZEA	

Erabakia

Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuko 38.c) artikuluan xedatutakoaren arabera, Udalbatzarrak hartu du erabakia, bozketan jasotako gehiengoarekin:

Lehenengo.- Udalbatzarraren aginpekoa den Gurutze Gorriaren batzorde probintzialean parte hartzeko Udalbatzaren ordezkaria izendatzea:

-Cristobal del Corte Lapacherie.



DEBAko UDALA

Bigarren.- Erabaki hau interesdunei jakinaraztea.

6. UEMARAKO UDAL ORDEZKARIEN IZENDAPEN PROPOSAMENA.

Iritziak eta galde erantzunak

Aimar Lasa zinegotziak esan du, ikusi beharko litzatekeela nola islatu Auzo Udalen ordezkariak UEMAn.

Bozketa arrunta egin ondoren, idazkariak honako emaitza hau jaso dela informatu du:

Erabakia

Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuko 38.c) artikuluan xedatutakoaren arabera, Udalbatzarrak hartu du erabakia, bozketan jasotako gehiengoarekin:

Lehenengo.- Udalbatzarraren aginpekoa den UEMAN parte hartzeko Udalbatzaren ordezkariak izendatzea:

-Titularrak: MIREN ELISABETH URTEAGA, UNAI LEKUBE, ANE MIREN EGIDAZU, AITOR SALEGI.

-Ordezkariak: ITZIAR IRIZAR, CRISTOBAL DEL CORTE, M^a LUISA ALBIZU, IÑAKI ESNAOLA.

Bigarren.- Erabaki hau interesdunei jakinaraztea.

7. DEBABARRENA MANKOMUNITATERAKO UDALAREN ORDEZKARIETAKO BATEN IZENDAPEN ALDAKETA PROPOSAMENA.

Iritziak eta galde erantzunak

Aimar Lasa zinegotziak esan du, Mankomunitatean herrirako garrantzitsuak diren gaiak lantzen direla eta proposatu du bi ordezkariak banatzea alderdiek lortutako bozka kopuruaren arabera, eta ondorioz, bi ordezkarietako bat EH Bildu taldekoa izatea.

Alkateak erantzun dio, aurreko baten azaldutakoa berretsi egiten duela.

Bozketa arrunta egin ondoren, idazkariak honako emaitza hau jaso dela informatu du:

bozketa

◇ Bozketan parte hartu duten zinegotziak:

12



DEBAko UDALA

◇ Aldeko botoak:	7
Aldeko boto-emaileak: PEDRO M ^a BONGOETXEA, AITOR SALEGI, M ^a LUISA ALBIZU, IÑAKI ESNAOLA, Debarren Ahotsa taldeko Alkate eta zinegotziak.	
◇ CRISTOBAL DEL CORTE, UNAI LEKUBE, IÑIGO CAMBRONERO, EAJ-PNVko zinegotziak.	
◇ Aurkako botoak:	5
◇ Aurkako boto-emaileak: MAIDER ZUBICARAY, AIMAR LASA, ITZIAR IRIZAR, JOSE LUIS ALBIZU, MIREN ELISABETH URTEAGA, EH Bilduko zinegotziak.	
◇ Abstentzioak:	0
◇ Emaitza: UDAL PROPOSAMENA ONARTZEA	

Erabakia

Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuko 38.c) artikuluan xedatutakoaren arabera, Udalbatzarrak hartu du erabakia, bozketan jasotako gehiengoarekin:

Lehenengo.- Udalbatzarraren aginpekoa den Debabarreneko Mankomunitatean parte hartzeko Udalbatzaren ordezkaria aldatzea:

-Iñigo Cambroneroren izendapena bertan behera uztea.

-Cristobal del Corte izendatzea.

Bigarren.- Erabaki hau interesdunei jakinaraztea.

8. TOKIKO JAI EGUNAREN PROPOSAMENA.

Aurrekariak

Euskal Autonomia Erkidegoaren Autonomia Estatutuaren 12. artikuluekin eta martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege Dekretuan onartutako Langileen Estatutuaren Legearen Testu Bateginaren 37. artikuluekin bat, Eusko Jaurlaritzaren eskumena da 2016. urterako lanegunen eta jaiegunen egutegia ezartzea urtean gehienez 14 jaiegun izanik.

Hori dela eta, hauekin bat etorrira, lanaldia, lanaldi bereziak eta atsedenaldiak arautzen dituen uztailaren 28ko 2001/1983 Errege Dekretuaren 45. eta 46. artikulua, eta lanaldi berezietan buruzko irailaren 21eko 1561/1995 Errege Dekretuaren xedapen indargabetzaile bakarra, Gobernu Kontseiluak 2015eko ekainaren 30ean egindako bilkuran, xedatu zuen:

1.-Egun baliogabetzat jotzea Euskal Autonomia Erkidegoan lan-ondorioetarako, bi mila eta hamaseian, urte osoko igande guztiak eta jaiegunak.



DEBAko UDALA

2.-Lanerako baliogabeak, ordainduak eta berreskuraezinak izatea, bi mila eta hamaseian, tokiko jaietako bi egun ere gehienez. Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Laneko, Enpleguko eta Gizarte Politiketako lurralde-ordezkariek ezarriko dituzte bi egun horiek, udal bakoitzeko udalbatzak proposatuta. Egun horiek ez dira batera eman behar lurralde historiko guztietan.

3.-Udal bakoitzak proposamenak egitea eta igortzea Laneko, Enpleguko eta Gizarte Politiketako bere lurralde-ordezkaritzara, kokapenaren arabera dagokion ordezkarietara, hilabeteko epean, dekretua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bozketa arrunta egin ondoren, idazkariak honako emaitza hau jaso dela informatu du:

Erabakia

Aurrekariaren berri izanda, Udalbatzarrak aho batez hartu du erabakia legezko hamahiru kideetatik hamabi bilkuran direla.

Lehenengo.- Lanerako baliogabea, ordaindua eta berreskuraezina izatea, bi mila eta hamaseian, ondoko tokiko jaia:

-Abuztuaren 16^a, San Roke.

Bigarren.- Erabaki hau jakinaraztea Laneko, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Gipuzkoako lurralde-ordezkaritzari.

9. 2004NNSS0001 PERCH-AREN BEHIN BETIKO ONARPENAREN PROPOSAMENA. PORTU KALEA, 2.

Hirigintza eta Etxebizitza batzordearen proposamena

“Una vez aprobada inicialmente la modificación del Plan Especial de Rehabilitación del casco histórico de Deba (unidad edificatoria C17), edificio Portu kalea 2 por la Junta Local de Gobierno el pasado 9 de abril de 2015, se expuso al público durante veinte días al efecto de poder presentar alegaciones si fuera preciso.

Teniendo en cuenta que no ha existido ninguna alegación, los asistentes a la comisión de Urbanismo proponer se apruebe definitivamente la modificación que se pretende en la próxima sesión plenaria.”

Idazkaritzako txostena

Portu Kalea 2ko jabekideek PERCHaren aldaketa puntuala eskatu dute.



DEBAko UDALA

Ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 97. Artikuluan jasotzen da Plan bereziak plan partzialetarako ezarritakoaren arabera egin, izapidetu eta onartuko direla. Horiek horrela, aipatutako Legearen 95. eta 96. Artikulueta jo beharra dago horietan definitzen baitira Plan bereziak onartzeko eman beharreko urratsak:

“95. artikulua.– Plan partzialak izapidetzea.

1.– Plan partziala egitea udalei dagokie, berez, baina beste edozein pertsona fisiko edo juridikok ere egin dezake.

2.– Udalak hasierako onespena edo ezespren arrazoitua emango dio plan partzialari. Lehenengo kasuan, jendaurrean jarriko du, udalerrinari dagokion lurralde historikoko aldizkari ofizialean eta lurralde horretan tirada gehien duen egunkarian edo egunkarietan hasierako onespena emateko erabakia argitaratuz. Plana 20 egunez egongo da, gutxienez, jendaurrean, azken argitalpenaren egunetik aurrera.

3.– Jendaurrean egondako epean aurkeztutako alegazioak ikusita, udalak behin-behingo edo behin betiko onartuko du plana, bidezko diren aldaketak egin ondoren. Aldaketak funtsezkoak badira, plan partzialaren testu bategin berri bat egingo da. Testu horri hasierako onespena emango zaio eta berriz ere jendaurrean jarriko da.

4.– Udalak plana behin-behingo edo behin betiko –dagokionez– onartzeko, sei hilabete izango ditu gehienez ere, hasierako onespena eman zaionetik kontatuta.

Epe hori ebazpenik jakinarazi gabe igarotakoan, plan partziala alderdietako batek eskatuta aurkeztu baldin bada, interesdunak ezetsia izan dela iritzi ahal izango dio.


5.– 3.000 biztanletik gorako herrietan bigarren udal onarpen horrek behin betiko onarpen izaera edukiko du.

Toki Araubidearen Oinarrien 47.2.11 artikuluan Udalbatzarreko kideen legezko kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoa ez da eskatzen kasu honetan, izan ere, ez gaude Planeamendu Orokorren eremuan, Garapeneko Planeamenduen eremuan baizik.

Bozketa arrunta egin ondoren, idazkariak honako emaitza hau jaso dela informatu du:

Erabakia

Aurrekarien berri izanda, Udalbatzarrak aho batez hartu du erabakia, Udalbatza osatzen duten legezko hamahiru zinegotziak hamabi bilkuran direla. Horretarako



DEBAko UDALA

aintzat hartu du Hirigintza eta Etxebizitza batzorde informatzailearen proposamena:

Lehenengo.- Behin-betiko izaeraz onartzea Debako Gune Historikoko Birgaitze Plan Bereziaren Aldaketa puntuala (2004NNSS0001), Portu kalea 2.

Bigarren.- Erabaki hau interesdunei jakinaraztea.

10. MOZIOA. AMNISTIA INTERNACIONAL-EK AURKEZTUA.

11. MOZIOA. EH BILDUK AURKEZTUA.

Udalbatzarraren saioa egin aurretik bozeramaileek batzarra egin dute eta testu bateratu bat bozkatzea proposatu dute.

Aimar Lasa zinegotziak adierazpen instituzionala irakurri egin du:

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Europako herrialdeetarako migrazio fluxua errealitate geldiezin da azken urteotan, besteak beste, jendarte zibila gogor zigortzen ari diren gerra eta gatazken ondorioz. Egoera honetan ihes egitea besterik ez zaie geratu euren bizitza salbu jarri nahi izan duten herritarrei.


Haien herrietatik ihesi datozen milaka eta milaka pertsonen heriotza eragiten duen egoera dramatiko baten aurrean gaude, eta horrela izanik, mendebaldeko agintarien ezintasuna eta geldotasuna gero eta nabariagoa den honetan, mundua ezin da lekuko isila izan.

Errealitate berri honen irtenbidea konplexua dela jakinik ere, eta oraindik herri bakoitzak hartu beharreko errefuxiatu kopurua zehaztu ez bada ere, uste dugu Erakundearen erreakzio azkar bat beharrezkoa dela.

Elkartasun adierazpen hau ez da gizatasun kontua soilik; arrazoi ezberdinengatik kanpora joan edota erbesteratu politiko bilakatu behar izan diren milaka euskaldunek jasotako elkartasunaren ordaina ere bada.

Honengatik guztiarengatik, Debako Udala osatzen dugun EAJ-PNV, EH BILDU eta DEBARREN AHOTSAk honako Institutzio Adierazpena aurkezten dugu:

- Debako Udalbatzak, babes-herrien sarera batzeko konpromisoa hartzen du, horretarako harrera dispositiboak prestatuz eta herritarren inplikazioa sustatzeko lana eginez.



DEBAko UDALA

- *Krisi humanitario honen aurrean modu aktiboan, elkartasunez eta giza justiziaz jokatzeari exijitzen diegu Europar Batasuneko estatu kideetako agintari eta gobernuei; era berean, gerra hauetatik ihes egiten duten eta tragedia honen biktima diren pertsonak hartzeko beharrezko bitartekoak bidera ditzatela ere galdegiten diegu.*
- *Debako Udalak munduko hainbat tokietan gertatzen ari diren gatazken eraginez lekualdatzera behartuak ikusi diren pertsonak babesteko plan bat osatzea eskatzen die gainerako euskal instituzioei, babes-herrien sarearekin bat egitea erabakitzen duten herriei beharrezko sostengua emanaz.*
- *Debako Udaltzarak gainerako Erakunde zein udalerriekin elkarlanean aritzeko konpromisoa hartzen du, babes sarea artikulatu eta handitzeko helburuarekin.*
- *Adierazpen honetan udalak hartzen dituen konpromisoen betetzea ziurtatzeko eta gai honi behar bezalako jarraipena egiteko, interesa duten herritar eta eragileei zabalik egongo den lan mahaian lan egin nahi duen guztiari Udaletxe honekin harremanetan jar dadin eskatzen zaio.*

Bozketa arrunta egin ondoren, idazkariak honako emaitza hau jaso dela informatu du:

Erabakia

Adierazpen instituzionalaren berri eduki ondoren, Udaltzarrak aho batez hartu du erabakia, Udaltzara osatzen duten legezko hamahiru zinegotziak hamabi bilkuran direla.

Lehenengo.- Debako Udaleko bozeramaileen batzarrak aurkeztutako adierazpen instituzionala onartzea Europako herrialdeetarako migrazio fluxuaren inguruan.

12. MOZIOA. STOP DESAHUCIOSEK AURKEZTUA.

Publikoan dagoen Stop desahucioseko ordezkari batek mozioaren testua irakurri egin du.

Iritziak eta galde erantzunak

Cristobal del Corte zinegotziak esan du, baraiak abstenitu egingo direla, nahiz eta moziaren ideia orokorarekin bat datozen. Jarraian adierazi dut zeintzuk aspektuekin ez dauden ados.



DEBAko UDALA

Bozketa arrunta egin ondoren, idazkariak honako emaitza hau jaso dela informatu du:

bozketa

◇ Bozketan parte hartu duten zinegotziak:	12
◇ Aldeko botoak:	9
Aldeko boto-emaileak: PEDRO M ^a BENGOTXEA, AITOR SALEGI, M ^a LUISA ALBIZU, IÑAKI ESNAOLA, Debarren Ahotsa taldeko Alkate eta zinegotziak.	
◇ MAIDER ZUBICARAY, AIMAR LASA, ITZIAR IRIZAR, JOSE LUIS ALBIZU, MIREN ELISABETH URTEAGA, EH Bilduko zinegotziak.	
◇ Aurkako botoak:	0
◇ Aurkako boto-emaileak:	
◇ Abstentzioak: CRISTOBAL DEL CORTE, UNAI LEKUBE, IÑIGO CAMBRONERO, EAJ-PNVko zinegotziak.	3
◇ Emaitza: MOZIOA ONARTZEA	

Erabakia


Mozioaren berri eduki ondoren, Udaltzarrak mozioa onartu du bozketan jasotako gehiengoarekin:

Lehenengo.- Stop desahuciosek aurkeztutako mozioa onartzea.

13 ALKATETZA DEKRETUEN BERRI EMATEA.

Idazkariak informatu du ondorengo dekretu hauek eman dituela Alkateak:

80	2015/07/23	Brigadarako langilearen kontratazioa: Uztailaren 24tik abuztuaren 28ra (festak)	
81	2015/07/24	Parking zaindariaren kontratazioa: Uztailaren 25 eta 26a	
82	2015/07/24	Eguneko Zentrorako langilearen kontratazioa: Uztailaren 27tik irailaren 11ra (2 langileen oporrak)	
83	2015/07/27	Brigadarako langilearen kontratazioa: Uztailaren 29 eta 30 (Itziarko festak)	
84	2015/07/28	Proteisa, 2000 SL-ri 28 etxebizitza eta garajeen lehen erabilera lizentzia	2012UROM0010
85	2015/07/28	Proteisa, 2000 SL-ri 28 etxebizitza eta garajeen lehen erabilera lizentzia	2012UROM0011
86	2015/07/29	Publizitatea egiteko, unitate mugikorra jartzeko biamena	2015ALES0083
87	2015/07/30	Parking zaindariaren kontratazioa: Uztailaren 31tik abuztuaren 2ra	



DEBAko UDALA

88	2015/07/30	Brigadarako langilearen kontratazioa: Abuztuaren 2tik 9ra (Itziarko festak)	
89	2015/07/30	Liburutegirako langilearen kontratazioa: Abuztuaren 3tik 17a (langile baten oporrak)	
90	2015/08/03	Erroldan baja ematea	
91	2015/08/05	Brigadarako 4 langileen kontratazioa: Abuztuaren 6tik 25era (festak)	
92	2015/08/05	Brigadarako 2 langileen kontratazioa: Abuztuaren 7a (festak)	
93	2015/08/05	Brigadarako langilearen kontratazioa: Abuztuaren 7tik 19ra (festak)	
94	2015/08/05	Brigadarako 2 langileen kontratazioa: Abuztuaren 12 eta 13 (festak)	
95	2015/08/06	Aiteko Management SL enpresari langilea aldatzeko eskaera	2013SCOU0003
96	2015/08/07	Parking zaindariaren kontratazioa: Abuztuaren 8 eta 9	
97	2015/08/13	Lehenengo alkateordeari eskuordetzea alkatetzari emandako eskumenak abuztuaren 20tik irailaren 6ra (oporrak)	2015SDEL0001
98	2015/08/14	Zezenlekuaren zaindariaren kontratazioa: Abuztuaren 16a	
99	2015/08/14	Zezenlekuaren zaindariaren kontratazioa: Abuztuaren 18a	
10	2015/08/14	Parking zaindariaren kontratazioa: Abuztuaren 15 eta 16	
101	2015/08/21	Parking zaindariaren kontratazioa: Abuztuaren 22 eta 23	
102	2015/08/28	Parking zaindariaren kontratazioa: Abuztuaren 29 eta 30	
103	2015/09/14	Gipuzkoako Alzheimerdunen senitartekoen eta lagunen elkarteari baimena udaltxe azpian mahai informatiboa jartzeko	2015ALES0084
104	2015/09/14	Liburutegirako langilearen kontratazioa: Irailaren 15tik 30era (langile baten oporrak)	
105	2015/09/15	Debako Gazte Asanbladari baimena Donbassen aldeko material bilketa egiteko	2015ALES0097

Maidar Zubicaray zinegotziak abuztuaren 6ko, 95 Dekretuaren inguruan informazioa eskatu du. Alkateak eta Cristobal del Corte zinegotziak sorospen kontratuaren gora beherei buruzko informazioa eman dute.

Udalbatzarra jakinaren gainean gelditu da.


14 ESKARIAK ETA GALDERAK

Aimar Lasa zinegotziak, 2015eko uztailaren 22ko Udalbatzarraren saioaren aktara bueltatuz, esan du, saio horretan Udalak erabaki zuela Itziarko Toki Entitate Txikia eratzeko 3/2005 Foru Dekretuaren aurka jarritako 152/2015 auzi errekurtsioan amore ematea. Kontuan edukita Tribunalaren epaia eta Udal aholkulari juridikoen argudio juridikoak, udal idazkariari txosten juridikoa egitea eskatu dio.

Idazkarariak gogorarazi du, bere eginkizunetan, objektibotasuna bermatzea daokiola.

Aimar Lasa zinegotziak galdetu du, Memoriaren inguruan uda bukaeran egondako alkateen bilerari buruz.

Alkateak eta Cristobal del Corte zinegotziak, gai horren inguruan dauden egitasmoen berri eman dute.



DEBAko UDALA

Aimar Lasa zinegotziak galdetu du, ze asmo dagoen hirigintzako aholkularitza-zerbitzua kontratatzeko orduan. Horren harira, Maider Zubicaray zinegotziak eskatu du euskararen bermea.

Alkateak erantzun du eskaintza desberdinak eskatu direla eta horiek alderatuko dituela. Euskararen bermearen inguruan erantzun dio Maiderri, berak, lau urtean euskara ez duela bermatu.

Itziar Irizar zinegotziak galdetu du Itziarko entitate txikian egongo den informazio bulegoaren inguruan.

Alkateak erantzun du, bilera egin duela entitate txikiko ordezkariekin eta harrera zerbitzua emateko udal langile bat joango dela egunero Itziarrera lan jardunaldi erdirako.

Jose Luis Albizu zinegotziak alzheimerren saiakuntza klinikoaren inguruan informazioa eskatu du, galdera asko dauzka egiteko, zein izango den Udalaren ardura, urratsak...

M.^a Luisa Albizu zinegotziak azaldu du abiapuntua zein dabilen izaten, baina adierazi du, gaia apasionantea izateaz gain, eman ahal diren azalpenak ere asko direla eta horiek emateko lekua eta momentua batzorde informatzailea izan daitekeela. Proiektuaren mangitudea handia da eta ondorioz zaila da forma ematea. Diru-laguntza behar da, bi inkestazaile behar dira, boluntarioen lana ezin da mugagabea izan, eta jendearen erantzuna zein izango den ere ez dakite...

Jose Luis Albizu zinegotziak gaineratu du, 1.000 pertsona mugitzea oso zaila dela eta hori, denon artean bultzatu beharra dagoela. Proposatu du lan-talde berezi bat sortze gai hau bultzatzeko.

Maider Zubicaray zinegotziak galdetu dio alkateari ea Juan Landa jarraitzen duen Udal aholkularia izaten.

Alkateak erantzun dion Sumion enpresako Angel Oyarzun dabilela aholkulari lanetan.

Besterik gabe, Alkate-Udalburuak amaitutzat eman du bilera, eta, eztabaidatutakoa nahiz erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizen honek, hori guztia idatzi eta ziurtatu egin dut.

Deban, 2015eko irailaren 24an

